

Oihane Lopez Lasa

A maila • 1 saria

Testigua ondoren datorrenari pasatzeko mila modu omen daude... argi suzia haren esku artean uztea, bidean aske joan dadin zure esku heldua bere sorbaldatik kentzea edo... hark noizbait irakurriko dituenaren esperoan lau lerrotan lehengo hizki gerora esaldi eta azkenik olerki edo ipuin izan diren horiek paper zuritan uztea...

Gogokoen dudan modua da hori, ni neu ere idazten hasi berri nintzen hartan, irakurri baintuen helduagoak ziren haien lerroak eta nolabait nire baitan hartu nuen, neurri batean, hitzek euregan utzi zuten esentzia. Aurten niri dagokit beharbada argi suzia behingoz hurrengoei pasatzea, idatzita eta idazteke dauden hitzak nolabait lotzeko nahiagatik bederen...

Hortaz, besterik gabe, sari hau testigua honaino ekartzen lagundu didaten aita eta amari, zein argia inoiz itzali ez zedin suzia zaindu duten aitona eta amamari eskaini nahi nieke, eurak baitira daramadan esentziaren jabe... Oihane Lopez Lasa naiz eta hemezortzi urte ditut.



HOTZAZ

Ertzen artetik soinu ezak
badakar haize hotz oparoak
beregari duen bero urria
I. Hosto eroriei edonork
kantatutako letani doinuek
kulunkatzen dute goxo
jaioberri den urtaro zuria

II. Orbelari ere antzeman zaio
nola erantzi duen eta jantzi
herdoil soinekoaren ordeztu,
zilar zurruneke zapia

III. Begira ezazu bada, nola
sortaldeko ferekari
kendu dion esku artetik
lapur bailitzan
ipar-haize lirainak tokia

IV. Ereindako haziak
eman zuen fruitua,
behin lore ere izan zen hura
badarama orain heriak

V. Izotz ankerrak
makaldu du ibaia,
hasperen ubelez
gutziz ehundu
errezel zurbildun ohea

VI. Eta ia ausaren baitan
isiltasuna pausatu da
magalean hartuaz
lehen urrun zein hurbil
adi zitekeen elea

VII. Adio soinetan oskarbia
eraman du gauaren ilunak
nola urtu den xuxurla
itzal artean dantzan,
nola joan den
ene argia nirea

VIII. Elurak behera erortzean
mugitzen duen ezereza
bailitzan
isiltasun lizun
otzanez jantzitako
neguko hegoaldien estalpea

IX. Ihesi doazen ordu geldiek
haien baitan daramate
iragan jaio
eta orainaren oinordeko izanik
etorkizun hurbilean
heriotzarekin dantzan
arituko den neguaren jabea

X. Eta horrela, gorantz so
adio kantuen esperoan
hemen da neguaren aienatzea
harekin dakarrela
ahul hurreratzen den
goxotasun arrotza

XI. Deseginez, urtuz, itzaliz doa
ibaia makaldu
hosto herdoilak zauritu
eta eleak isildu zituen
arerioaren hotsa

Ilunean bakardade,
Ilunean dar-dar,
ilunean beltz
ikusle
ernaldu eta jaio den
lore berriaren sustraian
eginen du negar minaren minez
guztia galdu duen hotzak.